

Zarauzko Sanz Eneak 1.079 dokumentu jaso ditu liburu bilketako kanpainan

Udal liburutegiak gobernuz kanpoko erakundeen artean banatu du materiala

Zarautz. Elan-Euskadi eta Saharautz Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKE) liburu bilketari ekin zioten duela bi hilabete eta Sanz Enea liburutegiak ere ekimen horretan parte hartu zuen. Liburutegiko arduradunek jakinarazi dutenez, egin izan den kanpainarik "arrakastatsuena" izan da aurtengoa, guztira, 1.079 dokumentu jaso baititu Sanz Eneak.

Bildutako materiala GKEn artean banatu du Sanz Eneak. Bizilagunek liburuak, diskoak, bideoak eta DVDak eraman dituzte udal liburutegira beharra dutenei laguntzeko helburuarekin. Gainera, liburutegiko irakurleek horrela eskatuta, kanpaina luzatu egin zen. Jaso diren 1.079 dokumentuetatik 994 liburuak, ipuin eta entziklopediak izan dira eta beste 285, berriz, ikus-entzunezkoak (disko, bideo, DVD, CD-Rom).

Elan-Euskadik Kubara bidaliko du materiala eta aurten ere, Saharautz Elkartasun taldeak kanpainan parte hartu du eta bildutakoarekin hainbat bigarren eskuko merkatu jarri ditu Saharako herritarrei laguntzeko. Sanz Eneak, Elan-Euskadik eta Saharautzek eskerrak eman nahi izan dizkiete aurtengo bilketan parte hartu duten bizilagun guztiei. >a.l.